

Independentziaren lehen urratsa: etxeko artoa ereitea

Jon Harluxet eta Xano Sallaberryk bezala, gero eta gehiago dira arto bikia selekzionatuz norbere etxaldeko hazia ereiten duten laborariak, hazi-etxeei erosi gabe. Programa esperimental batean ari dira, Frantzian debekatua baitago halakorik egitea.

URKO APAOLAZA

BUZUNARITZEKO belardiek berdeago dirudite zaparradaren ostean. Xano Sallaberry dugu gidari, laborari baxenafararra, Ainhizekoa. Artasoroak biluzik daude, udaren zain, eta Jaitia etxaldeko behiak patxadaz doaz bazka bila. Etxeko nagusiak egin digu ongi etorria: “Eztabaida ikusten ari nintzen” dio Jon Harluxetek, ordenagailu portatila mahaiko paperen artean lurperatuz. Pariseko Asanblea Nazionalean transgenikoen lege proposamena eztabaidatu eta onartu dute berriki; zinez, gainerako laboreak transgenikoen ondoan bizi litezkeen ala ez dago zalantzan.

Harluxet Biharko Lurraren Elkarte-ko (BLE) partaide da eta Bio D’Aquitaine federazioko lehendakaria. Gertutik jarraitu du transgenikoen inguruan sortutako eztabaida. Izan ere, laborari-ek autonomia eta burujabetza handi-agoa izan dezaten egiten dute lan.

Etxeko artoa: “Maite nuen ideia”

Biharko Lurraren Elkartea 93an sortu zuten eta emeki-emeki sendotu egin da; egun 200 laborariri eskaintzen dio laguntza. Ekosistema bakoitzari agrosistema bat zor zaiola diote. Badira sei-zazpi urte Jaitiako nagusia etxeko artoa ereiten hasi zela etxaldean: “Norbere haziaren jabe izatea maite nuen, laborantzian hori atzematen ez badugu galdu dugu ofizioa”. Amikuzeko baserri-rik batek Seguratik (Gipuzkoa) artoa eraman zuten bere soroko eritasunari aurre egiteko: “Ekarri zuten dozana bat buru, batetik bestera biderkatu eta ez zen problemarik izan mamutxa horrekin” azaldu digu laborariak.

Hegoaldeko arto hori ontsa zen, baina ez emankorra, eta Harluxetek



Xano Sallaberry eta Jon Harluxet azkeneko honen etxaldean, Buzunaritzen (Nafarroa Beherean). Artoa odol berrituz buru ederrak ateratzen dira, hazi hibridorik erosi gabe.

etxalde ttipia izanik arto ugari emango zion soroa behar zuten behiak bazkatzeko. Dordoinako (Akitania) Hazien Etxean jatorrizko arto haziak—hibridatu gabeak, jakina—biltzen hasi ziren eta laborarien arteko ahoz ahoko zabal-kundeari esker 150 lekutako haziak dituzte egun. Hazien Etxean lurralde bakoitzeko karakterizazioaren arabera trukutzen dituzte haziak, bioaniztasu-

“Norbere haziaren jabe izatea behar da atxiki, hori gabe galdu duzu ofizioa”

JON HARLUXET

naren onerako. 2005eko idorte handian, esaterako, artasoro batzuk arras kiskalirik geratu ziren, aldiz, beste soroen berdetasunak zirrara sortzen zuten.

Jon Harluxetek munduko hamabi lekutako haziak erabiltzen ditu bere etxalderako. Sallaberryk emaitzak ikusi zituenean ez zuen sinisten: “Pentsatzen nuen lehengo artoa ttipia zela, baina Jonen etxean buru eder horiek ikusi nituelarik harritu nintzen”. Jatorrizko artoarekin kontsanginitate arazoak zeuden eta horregatik izaten ziren txiki-agoak, baina odol berritzeari esker ikusi da ez dela zertan horrela izan beharrik. Hala ere, hazi trukaketa programa esperimental bati esker egiten ari dira,

administrazioarekin hitzarturik, zeren eta gaur egun, izugarria dirudien arren, haziak trukatzeko ez da legala.

Laborantza “kanpoko errezetak” erabilita egin nahi izan da. Errezeta horiek dira arto hibridoak, duela 60 urte AEBetarik mundu osora hedatu zen espezieen gurutzaketa –heterosia, argot zientifikoa–. Gaur egun Ipar Euskal Herriko laborarien %99ak multinazionalen erosten die haziak, laborategian sortutako arto “klonak” hazten dituzte soroetan, era mekanizatuan uzta oparora segurtatzeko. Baina hona desabantaila: ondoko generazioak ez dituela aurrekoaren ezaugarri joriak mantentzen. “Horregatik ezin duzu zure artoa erein eta urte guzian erosi behar” dio Ainhizekoak.

Iraultza berdearen beste ondorioak

Xano Sallaberryk aurreko egoera du gogoan eta arrunt garbi hitz egin du sutondoan eserita: “Laborantzaren egoera txarra zen biziki hona arte, jendea tristeki bizi zen, ateratzeko manera behar zen. Arto amerikanoarekin behi gehiago hazten zen, sos gehiago...”. Iraultza berdeak onura ugari ekarriko zituela sinestearazi zieten laborariei. Baina produktibitatearena ez omen da guztiz egia. Adibidez, ogia (garia Hegoaldean) oraingoz ezin izan da hibridatu eta selekzio naturala eginez errendimendu handiagoa izan du artoak baino.

Perkaiztegi hernaniarrak ekarri omen zuen Ameriketarik artoa lehen aldiz. Laster zabaldu zen Europa osoan eta industri iraultzan ezinbestekoa izan zen langileak elikatzeke. XXI. mendean mundu osoan milioika lagun arto uztaren zain dira bizirauteko. AEBetan produzitzen da artoaren %45a; Frantzia bosgarren esportatzaile handiena da. Herrialde horretan, lur azaleraren hiru milioi hektarea baino gehiago artorako erabiltzen dira eta Iparraldean landutako lurren ia erdia okupatzen dute artasoroek.

Kontua da munduan bospasei enpresa handi daudela hazien salmenta monopolizatzen dutenak eta ez merke saldu gainera. Gaur da eguna baseritarrek artoa nahi badute hazia erosi behar dutena, menpekotasun osoa dute hazi egileenganako, eta Harluxeten mintzaira erabiliz eurak “ttantto” bat besterik ez dira sistema zabal batean. Horrela, konfiantza eta gaitasuna galtzen da, lurrarekin lotura oro. Behin, laborari baten semeak galdetu zion artoaren hazia zein

Frantziako transgenikoen legeak laborantza biologikoaren heriotza ekar lezake

Apirilaren 9an Frantziako Asanblea Nazionalak transgenikoen inguruko lege proposamenari atea ireki zizkion. Bozka gutxiengatik onartu zen egitasmoa, besteak beste UMPko zenbait kidek bere alderdiaren irizpideei kasurik egin gabe kontrako jarrera azaldu zutelako.

Lege berriak, funtsean, “bateragarri” ikusten du laborantza transgenikoa eta biologikoa. Hori bai, polinizaziorik ez gertatzeko distantzia minimoa behar dela dio araudiak. Laborantza biologikoa lantzen dutenek transgenikoen ondoan bizitzea ezinezkoa dela diote, azkenean, polinizazioa eragotzi ezin den naturaren fenomeno delako. Transgenikoek ondoko soroak kutsatzean, uzta kaxkara eta pozoitua besterik ez da espero haiengandik, duela gutxi Bio D’Aquitainek Biarnon frogatu bezala.

MON 810 barietatea debekatua

Urtebete inguru da Lur Berri kooperatibak MON 810 arto transgenikoaren hazia laborariei salduko ziela jakinarazi zuela. Erabaki horrek protesta itzelak sortu zituen laborantza sindikatuen eskutik; 500 hektarea baino gehiago soro transgenikoa izan zen iaz Iparraldean. Ondoren, talde ekologisten presioari esker, Frantziako Gobernuak arto mota hori ereitea debekatu zuen, eragiten zituen ondorioak behar bezala ikertu artean. Asanblea Nazionalan onartu den lege proposamenak ez du, oraingoz, debekua bertan behera utzi.

ote zen: “Zuk galdetzea normala da, kazetaria zara, baina laborari semeak?”.

Transgenikoak, bigarren pausoa

Hibridazioaren eta transgeniaren logika berdina da. Harluxetek ironiaz definitzen du egoera: “Hazi saltzaileendako naturak badu injustizia handi bat, hazia urte batetik bestera berriz ereiten ahal dela”. Eta ustezko *pirateo* hori ezeztatzea izan da, baxenabartarraren esanetan, enpresa horien helburua. Jadanik hasiak dira *terminator* teknolo-

gia zabaltzeko asmoekin –labore antzuak sortzeko asmakizuna–, oraindik debekaturik dagoen arren. GAOek (Genetikoki Aldaturiko Organismoek, hots, transgenikoek) pozoia daramate bere baitan, baina aldi berean pozoia horri aurre egiteko gai da landarea. Aldiz, ondoko soroak akaba ditzake. Gainera, haziak patentea du. AEBetan adibidez, soro batean patentaturiko genea aurkitzen bada laboraria gaztigatua izan daiteke. Baina nola esan erleari landarerik ez ukitzeko?

Bioteknologoek transgenikoetan dute itxaropena munduko bihiaren krisiari aurre egiteko: bigarren iraultza berdea pronostikatu dute. Bitartean, ekologisten protestak eta herritarren errezeloa handitzen ari dira. Marie-Monique kazetariaren *Le monde selon Monsanto* (Mundua Monsantoaren arabera) pelikulak –izen bereko liburuan oinarritua– iritzi publikoa astindu du; dokumentalak Monsanto hazi-etxe estatubatuarrak patenteen atzean ezkutatzen dituen interesak bistaratzen ditu eta enpresa horiek munduko hazien jabe egiten ari direla nabarmen ageri da filman. Biomorrontzaren arora hurbiltzen ari ote garen, hori da askok bere buruari egiten dioten galdera. ■



Jatorrizko artaburu pintoak Buzunaritzen.

www.argaia.com/bideoak helbidean, elkarrizketaren bideoa.